

EUSKOTRENEK TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU OSTIRALEAN S.D.EIBAR – GETAFE C.F. NORGEHIAGOKA DELA ETA

Euskotrenek tren zerbitzua indartuko du ostiralean S.D.Eibar eta Getafe C.F. taldeek jokatuko duten futbol partidua dela eta. Partidu hori Ipuruan otsailaren 15ean 21:00etan jokatu da.

Zerbitzua indartzen duten tren bereziek ohiko geldialdiak egingo dituzte gainerako geltokietan. Tren zerbitzuek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

NORGEHIAGOKAREN AURRETIK

Partidu aurretik, zerbitzua tren erregularren bitartez eskainiko da:

- Durango – **ARDANTZA** (Eibar): 20:09 an
- Ermua – **ARDANTZA** (Eibar): 20:32 an, 20:42 an
- Deba – **ARDANTZA** (Eibar): 19:43 an

NORGEHIAGOKAREN ONDOREN

- **ARDANTZA** (Eibar) - Durango: 23:10ean
- **ARDANTZA** (Eibar) – Elgoibar: 23:10ean

Gainerako trenek bere ohiko ordutegia mantenduko dute.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete. Horrez gain informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan eta konpainiaren www.euskotren.eus web gunean, [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean eta APP ofizialean

Igorpen data : 2019ko otsailaren 13an

